

En la Casa Consistorial del M. I. Ayuntamiento de Auritz/Burguete siendo las 19,00 horas del día 10 de febrero de 2020, se reunió el Ayuntamiento al objeto de celebrar sesión ordinaria con la asistencia de los Sres/as. Concejales/as D. Juan Miguel Juandeaburre Ainciburu, D^a Miren Oyarbide Lapazarán, D^a. Ana Azanza Burusco y D. Mikel Gaztelu Alonso bajo la presidencia del Sr. Alcalde D. José Irigaray Gil, actuando como Secretaria de la Corporación Doña Marisol Ezcurra Irure.

1.- APROBACIÓN DEL ACTA DE SESIÓN DE 16 DE DICIEMBRE DE 2019

La Corporación acuerda con cuatro votos a favor y una abstención (Sr. Gaztelu), aprobar la sesión de 16 de diciembre de 2019.

2.- CONOCIMIENTO DE RESOLUCIONES DE ALCALDÍA EMITIDAS DESDE 13 DE DICIEMBRE DE 2019 HASTA EL 6 DE FEBRERO DE 2020

Informa el alcalde Sr. Irigaray, del contenido de las Resoluciones de Alcaldía de 4 de octubre a 12 de diciembre de 2019, que constan en el expediente de la sesión, dándose los miembros de la Corporación por enterados.

3.- ADHESIÓN SI PROCEDE A LA RUTA CARLOMAGNO

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray que informa de la jornada de presentación, en el Palacio del Condestable, del proyecto de la Ruta de Carlomagno, consistente en vertebrar una nueva vía de unión europea. Posteriormente el alcalde de Pamplona Sr. Maya, se puso en contacto con los Ayuntamientos que tienen relación con la misma, como Roncesvalles, Valcarlos, Erro, Esteribar, Olite, Estella, Tudela, etc. con el fin de empezar a trabajar sobre este tema. El coordinador de este proyecto en Navarra, Sr. Corpas, explicó que era necesario firmar un documento de adhesión al citado Itinerario Cultural Europeo, con el fin de colaborar activamente en la promoción de los fines culturales, educativos y turísticos, así como de cuantas iniciativas se puedan poner en marcha de forma colectiva en los enclaves que están concernidos con aquella empresa fundadora de Europa y ligados entre sí por el itinerario llamado "Vía Carlomagno".

Toma la palabra la concejala Sra. Oyarbide que con respecto a la adhesión a esta iniciativa, da lectura al siguiente escrito:

"Yo no puedo valorar si será positiva económica y turísticamente para Auritz/Burguete, pero yo por mi naturaleza, forma de ser y de ver el mundo, no puedo apoyarla.

Este proyecto lo que pretende es ensalzar la figura de un conquistador, que como todos ellos lo único que producen es dolor y muerte, aniquilando y sometiendo su autoridad y credo en todos los lugares por donde pasan.

No podemos olvidar que Carlomagno a su retorno de Zaragoza, arrasa con la ciudad de Pamplona/Iruña, la capital de los navarros.

Con esto lo que quiero decir, es que siempre se es muy benevolente con el enemigo, nos referimos con mucha normalidad a términos como el Silo y el Ajedrez de Carlomagno, la piedra, la fuente y la espada de Roldán, los doce Pares etc. y así lo único que estamos haciendo es humillar nuestra Historia.

Después de la batalla de Orreaga en el 778, Carlomagno no volvió a cruzar los Pirineos, espero que en el 2020 y en los años venideros tampoco lo vuelva a hacer."

Y manifiesta que en este punto del orden del día, su voto es negativo.

Toma la palabra el concejal Sr. Gaztelu que dando su apoyo al proyecto, manifiesta que los hechos históricos sucedieron hace 1.300 años y hay que verlo desde esa perspectiva y en todo caso y por esa misma razón en la anterior legislatura también se hizo un proyecto la Ruta de los Búnkeres que en este caso los mandó hacer el General Franco.

La concejala Sra. Azanza añade que lo cierto es que en Europa la figura de Carlomagno no se ve igual que aquí. Que a su entender, son hechos históricos, la ruta pasa por Auritz/Burguete, es parte de la historia de Navarra y siempre que pueda ser beneficioso para Auritz/Burguete le parece bien.

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray que responde que aunque comparte lo dicho por la concejala Miren Oyarbide, añadiendo que Carlomagno al igual que las tropas napoleónicas o el ejército nazi no vinieron en son de la unión pacífica de Europa, sino en el de conquista, su voto va a ser a favor de la adhesión basado en dar una segunda oportunidad a su nombre y poder ayudar a vertebrar una unión cordial tan necesaria en estos momentos de los diferentes pueblos europeos que es lo que pretende en principio el proyecto y que si llegado el momento se viese que fuera un fiasco se le puede retirar el apoyo. Por último, finaliza su intervención manifestando que también basa su voto en lo que dice una de las placas del monumento que levantaron nuestros antepasados a la defensa de los fueros navarros en el paseo de Sarasate de Pamplona escrita en caracteres íberos que los traduce al euskara y castellano y lee:

"Gu euskaldunok bertze jaun ez dugu Jaungoikoa baizik, atzerritarrari ostatua ematen dugu onirrizkero baina ez dugu nahi haien uztarria jazan. Aditu ezazue ongi, gure seme-alabak. Nosotros los vascos, no tenemos más señor que Dios. Al extranjero le damos acogedora hospitalidad, pero no queremos soportar su yugo. Oidlo bien, hijos nuestros".

Tras el debate surgido, se acuerda con cuatro votos a favor (Srs./as. Irigaray, Juandeaburre, Azanza y Gaztelu) y uno en contra (Sra. Oyarbide), aprobar el proyecto y adherirse al citado itinerario cultural europeo "Vía Carlomagno"

4.- REUBICACIÓN DE CONTENEDORES

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray que informa de que se constituyó la Asamblea de la Mancomunidad de Servicios Bidausi, en la que se habló luego de manera informal de varios asuntos entre otros, salió a relucir la gran cantidad de puntos de basura que había en Auritz/Burguete, proponiendo que se estudiara y se redujera el número de ellos. Por lo que propone, en principio, pasar los que están en la cuesta del hotel Loizu colocarlos donde la pared del femoral de Espelosin, los de la Calle Berexi y la Casa de Cultura, llevarlos al aparcamiento del frontón de atrás de Burguete. Interviene el concejal Sr. Juandeaburre que pregunta si se ha hablado con el trabajador que recoge la basura para ver si hay datos de donde se recoge más basura, en que puntos sobran y que uso se hace de ellos.

Toma la palabra el concejal Sr. Gaztelu, que manifiesta por un lado, que los contenedores de la casa de cultura, se pusieron porque se procedió a la limpieza de la misma y se llenaron y porque con la entrada de la Mancomunidad se pensó que se iba a generar mucho más papel y basura, por otro, que no tiene conocimiento de que la Mancomunidad considerara que había demasiados contenedores en Burguete, y por último que en su opinión en el verano se llenan todos. Contesta el alcalde que no se

refiere al número de contenedores sino a la existencia de demasiados puntos donde colocar contenedores. Finalmente añade el concejal Sr. Gaztelu, que ha leído el informe de Bidausi sobre la gestión individual que en general se hacen de los residuos y que resulta ser bastante desastrosa, siendo una de las razones por las que van a aumentar las tarifas.

Es opinión de todos los corporativos que se debiera hacer nuevas campañas de difusión de como se tienen que gestionar los diferentes tipos de basura.

Tras el debate, se acuerda por unanimidad, reducir los puntos de ubicación de contenedores aprobando en un principio la propuesta planteada y estudiando a futuro otros puntos.

5.- DESTINO MECNA CEMENTERIO

Toma el alcalde Sr. Irigaray la palabra que informa del dinero recaudado a través del mecenazgo para los distintos proyectos aprobados, 3000 euros para el proyecto del cementerio, 100 euros para el proyecto Iturissa, 100 euros para el proyecto de las murallas y 500 euros para la Iglesia. Respecto al dinero del cementerio propone comprar un porta féretros porque el que hay está en muy mal estado. Para ello, se ha puesto en contacto con el cementerio de Pamplona para que le informaran sobre los mismos y le remitieron a la empresa Torres de Elorz, los cuales van a enviar un presupuesto, así mismo, ha pensado que con el dinero que sobre se puede encargar un tríptico sobre el cementerio.

Toma la palabra el concejal Sr. Gaztelu, que con respecto al proyecto del cementerio en la legislatura anterior se les quedo por completar la idea que tenían de abrir el seto a los lados, dejando así paso a los laterales, instalar bancos a cada lado y colocar dos de las estelas nuevas que se encuentran donde ahora está ubicado el carro, en el talud a mano izquierda para que la gente las viera con un panel informativo y por tanto le gustaría que dicha propuesta se llevara a cabo. Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray que manifiesta que en cuanto a los bancos, setos etc. no tiene nada que objetar pero respecto a las estelas, estas son réplicas de las que se llevaron en su día a Pamplona que si bien una tiene una inscripción sencilla y corriente, la otra según le informó el Sr. Javier Zubiaur experto en estelas, es de una decoración gótica muy trabajada pudiéndose considerar una pieza única, por lo que entiende que al ser sacadas del cementerio, siendo muy atractivas para los amantes de lo ajeno, pudiera ser hurtada por mucho anclaje que se ponga. Cuestiona a su vez el alcalde que la ordenanza lo permita ya que fija donde se deben colocar las estelas, de hecho las familias no se pueden llevar las estelas del cementerio y considera que la colocación actual está avalada por los técnicos del Gobierno de Navarra. Toma la palabra el concejal Sr. Juandeabuerre que opina que al margen de las estelas, el resto de las propuestas formuladas por el concejal Sr. Gaztelu le parecen bien. Toma de nuevo la palabra el concejal Sr. Gaztelu, que aprueba la propuesta por el siguiente orden compra de carro y adecentamiento y ornato de los alrededores del cementerio y finalmente el tríptico.

Debatido el asunto se acuerda comprar el carro porta féretros, encargar un tríptico sobre el cementerio y finalmente adecentar los alrededores del cementerio e instalar dos bancos.

6.- CONTRATACION DESEMPLEADOS

Abierta la convocatoria para la contratación de desempleados por las Entidades Locales, y vistas las necesidades existentes, se acuerda por unanimidad, acogerse a la convocatoria y solicitar la contratación de una persona a jornada completa durante seis meses, de mayo a octubre.

7.- INFORMACION VARIA

Enmienda a los presupuestos de Navarra para el yacimiento de Zaldua.

El alcalde Sr. Irigaray, informa que presentó en nombre del Ayuntamiento y de los de Valcarlos, Roncesvalles, Aoiz, Longida, Arce y Erro a todos los partidos políticos del arco parlamentario una enmienda de 50.000 € al proyecto de presupuestos para desarrollar la investigación este año. Que finalmente ha sido Podemos, el partido que la ha defendido asignándole una cuantía de 5.000 €. Propone ofrecer a los vecinos que lo deseen celebrar esta primavera una excursión a Santa Criz de Eslava, Leyre y Liedena para conocer la influencia de este tipo de yacimientos en la población.

La Corporación se da por enterada.

Modificación ordenanza cementerio.

El alcalde Sr. Irigaray, informa que no habiéndose presentado alegaciones a la modificación esta será publicada en el Boletín quedando así aprobada definitivamente.

La Corporación se da por enterada.

Eurovelo. Proyecto Bicimugi.

El alcalde Sr. Irigaray, informa que el pasado siete de febrero en Saint Palais tuvo lugar la presentación del proyecto interregional Bicimugi presentado por Pirineos Atlánticos, Navarra y La Rioja junto a los ayuntamientos de Saint Palais y Esterenzubi cuyo objetivo es implantar la infraestructura de la ruta Eurovelo que trata de unir distintos municipios con vías adaptadas para bicicletas. Sería aprovechando por Baja Navarra, Navarra y La Rioja el recorrido cerca del trazado del Camino de Santiago salvo de Valcarlos hasta Aoiz que discurrirá por los itinerarios de época romana y de Aoiz a Pamplona por la vía verde de El Irati.

La Corporación se da por enterada.

Parque aventura Pirineos.

El alcalde Sr. Irigaray, informa que Zakarloa S.L. presentó una petición de aumento del coste de retirada de Parque Aventura que asciende a 3000 € motivada en que la mayor parte de los árboles tenían las sirgas engarzadas, una vez consultado con técnicos en la materia la ha admitido ascendiendo el coste a 13.000 €.

Monumento de Navarra a sus Muertos en la Cruzada. (Los Caidos).

El alcalde Sr. Irigaray, informa que presentó una solicitud al alcalde de Pamplona D. Enrique Maya, en la que le expone que entiende que sobre la decisión del futuro del edificio deben opinar todos los ayuntamientos navarros ya que su construcción fue costeadada por toda Navarra y que esa opinión bien pudiera ser canalizada por la Federación Navarra de Municipios y Concejos que aglutina a todas las entidades municipales. Así mismo solicitó que en caso de retirada por cumplimiento de la legislación vigente de las placas con los nombres de los combatientes del llamado Bando Nacional fallecidos en el frente de guerra, remitan a este Ayuntamiento la correspondiente a los soldados de Burguete.

La Corporación se da por enterada.

Posible fosa común de guerra de 1936.

El alcalde Sr. Irigaray, informa que doña Nieves Landa Irigaray le transmitió recientemente la posibilidad de que exista una fosa común de la guerra de 1936 en Urkitzeta o Barazekoerreka, cerca de la muga con Espinal. Que puso el testimonio en conocimiento de Paz y Convivencia pero que desgraciadamente debido a su fallecimiento no fue posible grabar su testimonio aunque él ha entregado la grabación que le hizo.

La Corporación se da por enterada.

Implantación de la fibra.

El alcalde Sr. Irigaray, informa que Miguel Ángel Irigoyen de la empresa Guifinet le ha transmitido que Nasertic les ha dado conexión desde Burguete por lo que próximamente darán una charla ofreciendo al vecindario su servicio.

La Corporación se da por enterada.

Trabajos en la Casa Consistorial.

El alcalde Sr. Irigaray, informa que con motivo de las obras que se llevan a cabo en el edificio se ha comprobado el mal estado de las tuberías que abastecen a escuelas y oficinas por lo que ha pedido un presupuesto a la constructora para su subsanación. Menciona que se está renovando a cargo del Ayuntamiento las puertas interiores que dan a la entrada del ascensor y que ha encargado placas a la ceramista Consuelo Ochoa para señalar históricamente las dependencias.

La Corporación se da por enterada.

Mesa del Pirineo.

El alcalde Sr. Irigaray, informa que recientemente en Ezkaroz se constituyó la nueva mesa del Pirineo de la que forma parte y que entre otros asuntos se habló de una propuesta de ley para mecenazgo rural.

La Corporación se da por enterada.

Mancomunidad Bidausi.

El alcalde Sr. Irigaray, informa que la presidencia de la misma ha caído en Ángel Mari Loperena Rota de Garralda y la vicepresidencia en José María Eciolaza Ochoa de Erro.

La Corporación se da por enterada.

Grabacion de documental sobre la Línea P por Discovery Max.

El alcalde Sr. Irigaray, informa que la cadena Discovery Max ha anunciado la próxima grabación de un documental de los búnkeres para su serie sobre grandes infraestructuras abandonadas.

La Corporación se da por enterada.

Cierre de portillos.

El alcalde Sr. Irigaray, informa que debido al vandalismo que últimamente se ha observado en Oiarrburu realizado con todoterrenos y motos, con el visto bueno del guarderío forestal, se han cerrado con candado los portillos de acceso a ese paraje.

La Corporación se da por enterada.

Solicitud de información por parte del Seprona de la Guardia Civil.

El alcalde Sr. Irigaray, informa que el Seprona se ha dirigido al Ayuntamiento pidiendo explicaciones sobre los vertidos y el estado de la zona de Ipetea. Respondiendo que

sobre los restos vegetales ya han sido desbrozados y sobre la zona del polígono próximamente se subsanará la situación.

La Corporación se da por enterada.

Reunión con el Montero.

El alcalde Sr. Irigaray, informa que la Corporación ha mantenido una reunión con el montero en la que entre otros temas se ha decidido que a elección de los beneficiarios se saquen los lotes de leña en dos modalidades diferentes, la habitual y la posibilidad de que los saque un maderista ya que esta última, mejora la selvicultura (es más fácil sacar un lote conjunto que no individual) y los accesos, da más seguridad y evita responsabilidades en caso de accidentes.

La Corporación se da por enterada.

Toma la palabra el concejal Sr. Juandeaburre que informa de lo siguiente:

En primer lugar, de la reunión celebrada por la Mancomunidad de Servicios Sociales Añamendi, explicando que la Secretaria que había hasta ahora ha dejado el cargo porque se ha ido a Lumbier, por lo que acogiéndose al listado y habiendo empate entre las dos siguientes candidatas se ha hecho sorteo y ha salido elegida la Sra. Gabriela Freire.

En segundo lugar, informa de que se está trabajando en incorporar a las actividades de la Mancomunidad las realizadas por la Asociación Eutsi porque la gente en la Aezkoa está muy contenta, así como introducir y hacerlo propio el proyecto denominado “De la pastilla a la zapatilla”.

En tercer lugar, da cuenta de los saldos existentes en cuenta a fecha 7 de febrero, proponiendo a su vez, unificar cuentas y que todo el tema de impuestos y tasas vaya a una única cuenta. El saldo a fecha 7 de febrero es de 143.023,46 euros y en las cuentas de crédito, crédito de 40.340,35 euros que está dispuesto y crédito de 42.280,18 euros que está disponible.

Por último, informa que se ha pedido a Medio Ambiente que se marquen aprovechamientos forestales-

8.- RUEGOS Y PREGUNTAS

Toma la palabra el concejal Sr. Gaztelu, para preguntar sobre los árboles que se han talado donde el parque infantil pues de cinco plantados queda uno y le gustaría saber por qué ya que no ve razón alguna para ello. Así mismo y relacionado con el tema, informa que Garaitzeko-Asi, tiene previsto desarrollar un proyecto sobre el día del árbol y plantar árboles que den fruto para las aves donde las errekas, pero con lo que ha pasado quiere saber si va a haber algún impedimento o no, dicho proyecto lo están trabajando con la empresa Ornitolan, teniendo también en cuenta la opinión de los monteros. Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray que señalando que le parece muy bien lo del proyecto de plantación de árboles le propone plantar donde la piscina fluvial para dar algo de sombra ya que es una demanda de los usuarios y una actuación que estaba prevista, pero efectivamente en todo caso se tiene que presentar el proyecto y contar con los monteros y con los ganaderos que llevan esos pastizales. Respecto a los cuatro árboles talados, manifiesta que se ha cortado los que estaban en mal estado, dejando en pie el único sano. Pregunta al concejal Sr. Gaztelu que opina que hay que hacer con los que hay encima del centro de salud, donde uno está partido y lleva mucho tiempo así,

no es de ahora y el alguacil lo cortó para ver si brotaba de nuevo pero él le ve muy poco futuro. Encontrándose en iguales condiciones el tejo donde casa Astiz, que tampoco sale adelante y el acebo que trasladaron a los alrededores del cementerio que está completamente seco. Añade que si no se han talado los del centro de salud, Astiz y cementerio es por lo que se comentó en wasap y decidió parar antes de hablar, pero tampoco les augura ningún futuro. El concejal Sr. Gaztelu contesta que antes de tirar se podían haber trasladado a otro lado. Continúa el alcalde manifestando que a la vista de la polémica que estaba surgiendo paró el asunto, en todo caso, quiere aclarar que no se ha actuado con mala fe, sino creyendo que sinceramente esos árboles no iban a salir adelante, y que si bien lo podía haber comentado antes de realizar el trabajo, no lo hizo porque no pensó que generasen tanta polémica pero que lo mando sin mala intención alguna.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 20:30 h. del mismo día, se levanta la sesión, de lo que doy fe.

Aurizko Udaletxean, 2020ko otsailaren 10an, 19:00etan, Udala bildu zen bilkura arrunta egiteko. Bertaratuak: Juan Miguel Juandeaburre Ainciburu, Miren Oyarbide Lapazaran, Ana Azanza Burusco eta Mikel Gaztelu Alonso, bilkura buru alkatea, Jose Irigaray Gil izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure.

1.- 2019KO ABENDUAREN 16KO AKTAREN ONESPENA.

Udalbatzak erabaki du aldeko lau botoz eta abstentzio batez (Gaztelu), 2019ko abenduaren 16ko bilkuraren akta onartzea.

2.- 2019ko ABENDUAREN 13tik 2020ko OTSAILAREN 6a ARTE ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA

Alkateak jakinarazi du 2019ko abenduaren 13tik 2020ko otsailaren 6ra eman dituen ebazpenak, horiek bilkurako espedientean daude eta udalkide guztiak jakitun dira.

3.- KARLOMAGNOREN IBILBIDEAREKIN BAT EGITEA, HALA BADAGOKIO

Irigaray alkate jaunak hartu du hitza, eta Kondestable Jauregian Karlomagnoaren Ibilbidearen proiektua aurkezteko jardunaldiaren berri eman du. Proiektu hori Europar Batasunerako bide berri bat egituratzean datza. Geroago Iruñeko alkate Maya jaunak ibilbidearekin zerikusia duten Udalekin harremanetan jarri zen, hala nola, Orreaga, Luzaide, Erroibar, Esteribar, Olite, Lizarra, Tuter, etab., gaiaren inguruan lanean hasteko. Proiektu horren Nafarroako koordinatzaileak, Corpas jaunak, azaldu zuenez, beharrezkoa zen Europako Kultur Ibilbideari atxikitzeke dokumentu batzuk sinatzea, kultura-, hezkuntza- eta turismo-helburuak sustatzen aktiboki laguntzeko, bai eta Europa sortu zuen enpresa harekin zerikusia duten eta elkarrekin “Karlomagnoaren Bidea” izeneko ibilbideak lotzen dituen kokaguneetan modu kolektiboan abian jar daitezkeen ekimen guztiak sustatzeko ere.

Oyarbide zinegotziak hitza hartu du eta ekimen horrekin bat egiteari dagokionean honakoa irakurri du:

“Nik ezin dut baloratu ekonomikoki eta turistikoki positiboa izango den Auritzentzat, baina nik, nire izaeragatik eta mundua ikusteko moduagatik, ezin dut babestu

Proiektu honen helburua konkistatzaile baten figura goraiatzea da. Konkistatzaile guztiek bezala, mina eta heriotza besterik ez dute eragiten, haien autoritatea eta sinesmena suntsituz eta menderatuz igarotzen diren leku guztietan.

Ezin dugu ahaztu Karlomagno, Zaragozatik itzultzean, nafarren hiriburua, Iruñea, erabat suntsitu zuela.

Honekin esan nahi dudana zera da, beti oso onberak izan ohi garela etsaiarekin, normaltasun osoz aipatzen ditugula Karlomagnoaren siloa eta xakea, Errolanen harria, iturria eta ezpata, hamabi pareak eta abar, eta egiten ari garen gauza bakarra gure Historia umiliatzea dela.

778ko Orreagako Gatazkaren ondoren Karlomagno ez zituen berriro Pirinioak gurutzatu, espero dut 2020an eta hurrengo urteetan ere horrelakorik ez gertatzea”.

Eta adierazi du bere botoa ezezkoa dela.

Gaztelu zinegotzi jaunak hitza hartu du eta, proiektuari babes eman, adierazi du gertaera historikoak duela 1.300 urte gertatu zirela eta ikuspegi horretatik ikusi behar direla, eta, nolahi ere, arrazoi beragatik, aurreko legegintzaldian ere proiektu bat egin zen, Bunkerren Ibilbidea, kasu honetan Franco jeneralak egiteko agindu zuena.

Azanza zinegotziak gaineratu du Europar Karloagnoren figura ez dela hemen bezala ikusten. Haren ustez, gertaera historikoak dira, ibilbidea Auritzetik igarotzen da, Nafarroako historiaren parte da eta, betiere, Auritzentzat onuragarria izan badaiteke, ongi iruditzen zaio.

Irigaray alkateak hartu du hitza, eta erantzun du Miren Oyarbide zinegotziak esandakoa partekatzen badu ere, gaineratu du Karlomagno, Napoleondar tropak edo armada nazia ez zirela Europaren batasun baketsua lortzeko etorri, konkistatzeko baizik; bere botoa atxikimenduaren aldekoa izango dela, bere izenari bigarren aukera bat ematean eta hain beharrezkoa den batasun adeitsua egituratzen lagundu ahal izateko. Proiektuak, printzipioz, Europako herri ezberdinak elkartu nahi ditu, eta, unea iristen denean, iruzurra dela ikusiz gero, laguntza kendu ahalko zaio. Azkenik eta bukatzeko, adierazi du gure arbasoek Iruñeko Sarasate pasealekuan Nafarroako foruen defentsarako eraiki zuten monumentuko plaketako batean ere oinarritzen duela bere botoa. Plaka horri iberiar karakterez idatzita dago, eta euskarara eta gaztelaniara itzuli eta irakurri du:

"Gu euskaldunok bertze jaun ez dugu Jaungoikoa baizik, atzerritarrari ostatua ematen dugu onirrizkero baina ez dugu nahi haien uztarria jazan. Adu ezazue ongi, gure seme-alabak. Nosotros los vascos, no tenemos más señor que Dios. Al extranjero le damos acogedora hospitalidad, pero no queremos soportar su yugo. Oídlo bien, hijos nuestros".

Sortutako eztabaidaren ondoren, aldeko lau botorekin (Irigaray, Juandeaburre, Azanza eta Gaztelu) eta kontrako batekin (Oyarbide), adostu da proiektua onartzea eta aipatutako Europako kultur ibilbideari, "Karlomagno bidea" atxikitzea

4.- EDUKIONTZIAK BIRKOKATZEA

Irigaray jaunak hartu du hitza, eta jakinarazi du Bidausi Zerbitzu Mankomunitatearen Batzarra eratu zela. Ondoren, modu informalean hitz egin zela hainbat gairi buruz, besteak beste, Auritzen zegoen zabor-puntuaren kopuru handia nabarmendu zen, eta horien kopurua aztertu eta murriztea proposatu zuen. Hortaz, proposatu du, hasiera batean, Loizu Hoteleko maldan daudenak Espelosinen ongarritegiaren paretaren ondora eramatea, eta Berexi eta Kultur Etxekoak atzeko aparkalekura eramatea. Juandeaburre zinegotziak hitza hartu du eta galdetu du ea zaborra biltzen duen langilearekin hitz egin duten jakiteko non biltzen den zabor gehien, non dauden edukiontziak soberan eta nola erabiltzen diren.

Gaztelu zinegotziak hitza hartu du eta esan du, batetik, kultur etxeko edukiontziak jarri zirela kultur etxea garbitu baitzen eta bete baitziren, eta, uste baitzen paper eta zabor gehiago sortuko zela, eta bestetik ez zekiela Mankomunitateak uste zuenik Auritzen edukiontzi gehiegi zeudenik, eta bukatzeko, bere ustez, udan guztiak betetzen direla. Alkateak dio ez dela edukiontzien kopuruaz ari, baizik eta leku gehiegitan daudela kokatuak. Bukatzeko Gaztelu zinegotziak dio Bidausi Mankomunitatearen txostena irakurri duela eta norbanakoak zaborren kudeaketa egiten duen moduz nahiko gaizki hitz egiten duela, eta horregatik, besteak beste, tarifak igoko direla.

Udalbatzako kide guztien iritzia da zabor mota desberdinak nola kudeatu behar diren zabaltzeko kanpaina berriak egin beharko lirakeela.

Eztabaidaren ondoren, aho batez erabaki da edukiontzien kokapen-puntuak murriztea, hasiera batean planteatutako proposamena onartuz eta etorkizunerako beste puntu batzuk aztertuz.

5.- HILERRIRAKO MEZENASGOAREN BIDEZ LORTUTAKOAREKIN ZER EGIN

Irigaray alkateak hartu du hitza, eta mezenasgoaren bidez bildutako diruaren berri eman du, onartutako proiektu ezberdinetarako: 3000 euro hilerriaren proiekturako, 100 euro Iturissa proiekturako, 100 euro harresien proiekturako eta 500 euro Elizarentzat. Hilerriko diruari dagokionez, hilkutxak hilerriera eramateko gurdi bat erostea proposatu du, dagoena oso egoera txarrean dagoelako Horretarako, harremanetan jarri da Iruñeko hilerriarekin, haiei buruzko informazioa eman ziezaioten, eta Torres de Elorz enpresari igorri zioten; haiek aurrekontu bat bidaliko dute, eta, era berean, pentsatu du hilerriari buruzko triptiko bat enkargatu ahal dela dirua soberan egonez gero.

Gaztelu zinegotzi jaunak hartu du hitza. Aurreko legegintzaldian hilerriaren proiektuari dagokionez, alboetan hesia irekitzeko zuten ideia bukatu gabe geratu zitzairen. Modu horretan, alboei bide emango zitzairen, alde banatan bankuak jarriz eta orain gurdia dagoen lekuan dauden bi hilarri berri jarriz, ezkerreko ezpondan, panel informagarri bat jarriz, eta, beraz, gustatuko litzaioke proposamen hori gauzatzea. Irigaray alkateak hartu du hitza eta adierazi du, bankuei, hesiei eta abarrei dagokienez, ez duela eragozpenik, baina hilarriei dagokienez, bere garaian Iruñera eraman zirenen erreplikak dira, eta batek inskripzio erraza eta arrunta badu ere, besteak, Javier Zubiaur jaunak esteletan adituak, adierazi zionez, apaindura gotikoa du. Pieza bakartzat har daiteke, eta, beraz, uste du, hilerritik ateratzean, ebasleentzat oso erakargarriak izan daitezkeela, eta ongi ainguratuta ere ebats daitezkeela. Era berean, alkateak zalantzan jarri du ordenantzak horretarako aukera ematen duenik, hilarriak non jarri behar diren finkatzen baitu; izan

ere, familiek ezin dituzte hilerriko hilarriak eraman, eta egungo kokapena Nafarroako Gobernuako teknikariek bermatzen dutela uste du. Juandeaburre zinegotzi jaunak hartu du hitza, eta esan du, hilarriak alde batera utzita, Gaztelu zinegotziak egindako gainerako proposamenak ongi iruditzen zaizkiola. Gaztelu zinegotzi jaunak hartu du berriro hitza eta proposamena onartu duela dio, honako hurrenkeran: orgaren erosketa eta kanposantuaren ingurua txukuntzea, eta, azkenik, triptikoa.

Gaia eztabaidatu ondoren, hilkutxa eramateko orga erostea, hilerriaren gaineko triptiko bat enkargatzea eta, azkenik, hilerriaren inguruak txukuntzea eta bi banku jartzea erabaki da.

6.- LANGABETUAK KONTRATATZEA

Toki-erakundeek langabeak kontratatzeke deialdia irekita, eta dauden beharrak ikusita, aho batez erabaki da deialdiari heltzea eta sei hilabetez lanaldi osoko pertsona bat kontratatzeke eskatzea, maiatzetik urrira.

7.- BESTERIK

Nafarroako aurrekontuei aurkeztutako emendakina, Zalduako aztarnategirako

Irigaray alkateak jakinarazi du Udal honen eta Luzaide, Orreaga, Agoitz, Longida, Artzibar eta Erroibarko Udalen izenean legebiltzarreko talde politiko guztiei 50.000 euroko emendakina aurkeztu zitzaizela, aurtengo aurrekontuen proiektuari, ikerketak garatzeko. Azkenik Podemos alderdia izan dela defendatu duena eta 5000 euro lortu direla. Proposatu du udaberriari irteera bat eskaintzea bizilagunei horrelako aztarnategiek lurraldean duten eragina ezagutzeko eta bisita egitea Eslabako Santa Criz, Leire eta Ledeara.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Hilerriko ordenantza aldatzea

Alkateak, Irigaray jaunak, jakinarazi du aldaketari alegaziorik aurkeztu ez zaizkionez, aldizkari ofizialean argitaratuko dela, behin betiko onetsizat eman dadin.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Eurovelo. Bicimugi proiektua.

Irigaray alkateak jakinarazi du otsailaren zazpian Donapaleun Bicimugi proiektua aurkeztu zutela Pirinio Atlantiarrak, Nafarroak eta Errioxak Donapaleuko eta Ezterenzubiko Udalekin batera; proiektu horren helburua da Eurovelo azpiegitura egonkortzea txirrintulei egokitutako bideen bidez udalerriak elkartuta. Nafarroa Beherean, Nafarroan eta Errioxan Done Jakue Bidearen ondotik pasatuko litzateke, Luzaidetik Agoitzera salbu, hor erromatarren garaietako galtzadatik pasatuko baita, eta Agoiztik Iruñera Iratiko Bide berdetik.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Pirineos Abentura Parkea

Irigaray alkateak jakinarazi du Zakarloa S.M.ak Abentura Parkea jasotzeko kostua handiago zela esan zuela, hau da, 3000 € gehiago, zuhaitz gehienek zirgak itsatsita zituztelako, eta, gaian adituak diren teknikariei galdetuta, onartu du eta kostua gutzira 13.000 eurokoa da.

Gurutzadan hildakoen Nafarroako monumentua (Eroriak).

Irigaray alkateak jakinarazi du eskaera bat aurkeztu ziola Enrique Maya Iruñeko alkateari, eta, bertan, azaldu dio ulertzen duela eraikinaren etorkizunaren erabakiari buruz Nafarroako udal guztiek iritzia eman behar dutela, Nafarroa osoak ordaindu baitzuen haren eraikuntza, eta hori Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak bideratu zezakeela, zeinak udal-erakunde guztiak biltzen baititu. Era berean, gerra-frontean hildako Bando Nazionala deiturikoaren borrokalarien izenak dituzten plakak indarrean dagoen legedia betetzeagatik erretiratuz gero, Aurizko soldaduei dagokien agiria udal honetara bidaltzeko eskatu zuen.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

1936ko gerraren balizko hilobi komuna

Irigaray alkateak jakinarazi du Nieves Landa Irigaray andreak duela gutxi jakinarazi ziola 1936ko gerrako hobi komun bat egon zitekeela Urkizetan edo Baratzekoerrekan, Aurizberriko mugatik gertu. Lekukotza Bakea eta Bizikidetzaz zerbitzuari jakinarazi ziola, baina, zoritxarrez, bere heriotzaren ondorioz, ez zela posible izan haren testigantza grabatzea, nahiz eta berak eman egin dien egin zion grabazioa.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Zuntz optikoa jartzea.

Irigaray alkateak jakinarazi du Guifinet enpresako Miguel Angel Irigoyenek jakinarazi diola Nasertic enpresak lotura eman diela Auriztik, eta, beraz, laster hitzaldi bat emango dutela, bizilagunei beren zerbitzua eskainiz.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Udaletxeko obrak

Irigaray alkateak jakinarazi du, eraikinean egiten ari diren obrak direla eta, egiaztatu dela eskolak eta bulegoak hornitzen dituzten hodiak egoera txarrean daudela, eta, beraz, aurrekontua eskatu dio eraikuntza-enpresari, konpon dezan. Aipatu du, Udalaren ardurapean, igogailuaren sarrerara ematen dituzten barruko ateak berritzen ari direla, eta Consuelo Ochoa zeramikagileari plakak enkargatu dizkiola, bulegoak historikoki seinaleztatzeko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Pirinioko Mahaia

Irigaray alkateak jakinarazi du duela gutxi, Ezkarozen, Pirinioetako mahaia berria eratu zela eta mahaia horren parte dela, eta, besteak beste, landa-mezenasgorako lege-proposamen bati buruz hitz egin zela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Bidausi Mankomunitatea

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du lehendakaria Garraldako Angel Mari Loperena Rota izendatu zutela, eta lehendakariorde Erroibarko Jose Maria Eciolaza Ochoa.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Discovery Max kateak P Lerroari buruzko dokumentala grabatuko du

Irigaray alkateak jakinarazi du Discovery Max kateak iragarri duela bunkerren dokumental bat grabatuko duela, bertan behera utzitako azpiegitura handiei buruzko serierako.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Atakak ixtea.

Irigaray alkateak jakinarazi du, Oiarburun lur orotako ibilgailuekin eta motorrekin azkenaldian ikusi den bandalismoa dela-eta, basozainaren oniritziarekin, giltzarrapoz itxi direla paraje horretara sartzeko atakak.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Goardia Zibileko Sepronak egin duen informazio eskaera

Irigaray alkateak jakinarazi du Seprona Udalari zuzendu zaiola Ipetearen inguruko isurketei eta gunearen egoerari buruzko azalpenak eskatuz. Erantzun zaie sasiak moztu direla eta industrialdeko egoera laster konponduko dela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Mendizainarekin izandako bilera.

Irigaray alkateak jakinarazi du Udalbatzak bilera bat egin duela mendizainarekin. Bilera horretan, besteak beste, erabaki da, onuradunen aukeraren arabera, egur-loteak bi modalitatetan ateratzea: ohikoa eta zurgile batek ateratzeko aukera; izan ere, azken horrek basozaintza (errazagoa da lote bateratua ateratzea, ez banakakoa) eta sarbideak hobetzen ditu, segurtasun handiagoa ematen du eta erantzukizunak saihesten ditu.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Juandeaburre zinegotziak hitza hartu du eta honakoa jakinarazi du:

Lehenik eta behin, Auñamendi Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateak egindako bilera, orain arte zegoen idazkaria Irunberrira joan dela eta kargua utzi duela azalduz; beraz, zerrendari helduta eta hurrengo bi hautagaien artean berdinketa zegoenez, zozketa egin da eta Gabriela Freire andrea aukeratu da.

Bigarrenik, jakinarazi du lanean ari direla Mankomunitatearen jardueretara Eutsi Elkartek egindakoak gehitzeko, Aezkoan jendea oso pozik dagoelako, baita "Gehiago mugitu, botikak gutxitu" izeneko proiektuan sartu eta berezkoa egiteko ere.

Hirugarrenik, otsailaren 7an kontuan dauden saldoen berri ematen du; era berean, kontuak bateratzea proposatzen du, eta zergen eta tasen gai guztia kontu bakar batera joatea. Otsailaren 7ko saldoa 143.023,46 eurokoa da, eta kreditu kontuetan 40.340,35 euro eta 42.280,18 euro, hurrenez hurren.

Azkenik jakinarazi du Ingurumen Departamentuari eskatu zaiola oihan aprobetxamenduak markatzea.

8.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Gaztelu zinegotzi jaunak hartu du hitza, eta haur-parkea dagoen lekuan moztu diren zuhaitzei buruz galdetu du; izan ere, bost landatu ziren eta bakarra geratzen da, eta jakin nahi luke zergatik, ez baitu horretarako arrazoirik ikusten. Era berean, eta gaiarekin lotuta, jakinarazi du Garaitzeko-Asi elkarteak zuhaitzaren egunari buruzko proiektu bat garatzeko asmoa duela eta hegaztientzat fruitua emango duten zuhaitzak landatuko dituela, baina, gertatu denarekin, jakin nahi du eragozpenik egongo den ala ez, eta proiektu hori Ornitolan enpresarekin lantzen ari dela, mendizainen iritzia ere kontuan hartuta. Irigaray alkateak hartu du hitza eta esan du oso ongi iruditzen zaiola zuhaitzak landatzeko proiektua, eta proposatu dio ibai-igerilekuan landatzea itzal pixka bat emateko; izan ere, erabiltzaileen eskaera bat da eta aurreikusita zegoen jarduketa bat, baina, nolana ere, proiektua aurkeztu behar da eta mendizainekin zein larre horiek daramatzaten abeltzainekin hitz egin behar da. Moztutako lau zuhaitzei dagokienez, egoera txarrean zeudenak moztu direla adierazi du, osasuntsu zegoen bakarra zutik

utziz. Gaztelu zinegotzi jaunari galdetu dio bere ustez osasun-etxearen gainean daudenekin zer egin behar den, bat hautsita baitago eta denbora asko baitarama horrela, ez da oraingoa eta aguazilak moztu egin zuen berriro sortzen ote zen ikusteko, baina berak oso etorkizun gutxi ikusten diola dio. Baldintza berdinetan aurkitzen dira Astiz etxearen ondoko hagina, aurrera ateratzen ez dena, eta erabat lehor dagoen hilerriaren inguruetara eramán zuten gorostia ere. Gaineratu duenez, osasun-zentrokoak, Astiz etxearen ondokoa eta hilerria eramandakoa moztu ez badira wasap-en aipatu zenagatik izan dela eta hitz egin aurretik gelditzea erabaki zuela, baina ez diela batere etorkizunik iragartzen. Gaztelu zinegotziak erantzun du bota baino lehen beste norabaitera eman zitezkeela. Alkateak jarraitu du esanez, sortzen ari zen polemika ikusita, gaia gelditu zuela, eta, nolana ere, argitu nahi duela ez dela fede txarrez jokatu, baizik eta benetan uste duela zuhaitz horiek ez zirela aurrera aterako, eta, lana egin aurretik komentatu ahal izan bazuen ere, ez zuela egin, ez zuelako uste hainbeste polemika sortuko zuenik, baina asmo txarrik gabe agindu zuela.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez gero, bilkurari bukaera eman zaio 20:30ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.